

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Behin betiko onartzea Garaioko probintzia parkearen erabilera publikoa arautzen duen ordenantza

Garaioko probintzia parkearen (Burgelu) erabilera publikoa arautzen duen ordenantza ezartzen duen espediente jendaurrean egon den bitartean alegazio edo oharrik aurkeztu ez denez gero, osorik argitaratzen da aipatutako ordenantzaren aldaketaren testua:

“Garaioko parkea Burgeluko udalerrian dago. Azken urteetan zehar, eta badirudi etorkizuneari ere hori izango dela joera, ikusle eta erabiltzaile kopuruak gora eta gora egin du, batez ere bainu eremuan.

Europako erakundeek Erkidegoko Leku Garrantzitsu izendatu dute eremua Zadorrako sistemaren barruan eta, gainera, Kontserbazio Bereziko Eremuaren adierazpena eman diote. Ildo horretan, besteak beste, Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak babesten du eremua eta, duela urte batzuetatik hona, Arabako Foru Aldundiak berebiziko arreta eskaintzen dio Ingurumen Zuzendaritzaren bitartez. Zuzendaritza hori da, hain zuzen ere, eremuaren antolamendu, kudeaketa eta zaintza zuzenean arduratzen dena.

Eremua hornitu eta seinaleztatzeko asmoz orain arte jarri diren azpiegitura eta instalazioez gain, ekimen publiko eta aisialdiko jarduerak ugari garatzen dira bertan; hainbeste dira jarduerak, ezen arestian aipatutako ingurumen organoak eskatu baitu “bainu eremua” Ingurumen Hezkuntzako Fundazioak (FEE) garatzen duen hondartzetako Bandera Urdina izeneko nazioarteko programan xertatu dadila, betiere bereizgarri horren inguruan ezarritako baldintza zorrotz eta zehatzak beteta.

Beraz, behar-beharrezkoa da lehen esandako eremua erabiltzearen gaineko arauzko erregulazioa ematea, halako eran, non aisialdiko jarduerak bete-betean gozatu ahal izango diren, modu arduratsuan eta begirune osoz, bizikidetza onean eta ingurune naturala aintzat hartuta. Horretarako, probintzia parke honi eragiten dion ordenantza hau aldarrikatu da. Esandako guztiagatik eta parkearen ezaugarri bereziengatik, eremuak berariazko araudia behar du, eta lekuari aplikagarri zaizkion gainerako xedapenek osatuko dute, besteak beste, ekainaren 26ko 74/2001 Foru Dekretua, Zadorrako urtegiaren ertzen egokitzapen ekologikorako Plan Berezia, edo animaliak eduki eta babesteari buruzko udal ordenantza.

Ondore horretarako, honaino esandako guztia kontuan hartuta, izaera sektorialeko ezin konta ahala xedapenek eta herri erakundeek ukitzen duten eremu berezia denez (Ingurumena, Ura, Naturagune Babestuak, Mendiak, Arrantza, Ehiza eta beste hamaika) eta, gainera, Arabako Foru Aldundiak kudeatzen duenez, udalari aitortutako eskumen jatorrenak nabarmendu behar dira, bereziki, eremua erabili eta gozatzeko bizikidetza arauen ezarpenari dagokionez. Besteak beste, aipatuko ditugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua udalari esleitzen dizkion eskumenak, hala nola, ingurumen arlokoak, parke eta lorategi publikoen gainekoak, udaltzaingoa, babes zibila eta herritarren osasungarritasuna. Eta eskumen horiei gehitu behar zaizkie, hain zuzen ere, 1985eko Lege horren 139. artikulua eta hurrengoek xedatutako bizikidetza arauak.

Aurreko guztiagatik, honako xedapen hauek onetsi eta ezarri dira:

1. artikulua. Xedea

7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 139. artikulua eta hurrengoek xedatzen dutenari jarraiki, udalari esleitutako eskumenak erabilia ematen den honako ordenantza honen helburu nagusia Garaioko probintzia parkeko bizikidetzaren harremanak eta espazio publikoaren erabilera arautzea da.

2. artikulua. Ordutegia errespetatzea

1. Arabako Foru Aldundiak, probintzia parkeko espazio publikoaren eta hari atxikitako zerbitzu publikoaren titularra den aldetik, udalari kontsulta egin ondotik, jendeak erabiltzeko ordutegia ezarriko du, bai eta espazio publikoa erabiltzeko berariazko xedapenak eman ere.

2. Jendeak erabiltzeko ordutegitik kanpo, ezin izango da pertsonarik edo ibilgailurik sartu parkera edo han egon, instalazioen zaintza, segurtasuna eta mantentze lana egiteko langileak edo zerbitzuko ibilgailuak izan ezik, edota Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak baimendutakoak izan ezik.

3. artikulua. Ibilgailu motordunak

1. Jendearentzako ordutegiaren barruan, ibilgailu motordunak beren-beregi seinaleztatutako aparkalekuetara, ez beste lekuetara, sartu ahal izango dira, edukiera bete arte. Edukiera betetakoan, ez da ibilgailu gehiago onartuko parkean.

2. Motozikletak, quad eta beste ibilgailu motordun batzuk parkeko asfaltozko bideetan eta egokitutako aparkalekuetan, ez beste inon, ibili ahal izango dira, betiere isilgailuz hornituta badaude. Ildo horretan, halako ibilgailuek berariaz debekatuta dute ibilbide berdeetan, aisialdiko bide ekologikoetan eta parkearen eremuaren barruko gainerako azalera sartu eta zirkulatzea.

3. Karabanak eta autokarabanak jendearentzako ordutegiaren barruan sartu ahal izango dira ibilgailu mota horrentzat berariaz egokitutako aparkalekura, bakar-bakarrik aparkatzeko xedez eta aipatutako aparkalekuaren edukiera bete arte.

4. Nolanahi ere, guztiz debekatuta dago parkeko zerbitzuari atxikita ez dauden ibilgailu motordunak egotea 50 metrotik beherako distantzian, "bainu eremua" deritzonaren ertzetik zenbatzen hasita.

4. artikulua. Gehieneko abiadura

Parkean sar daitezkeen ibilgailu mota guztiek, baita bizikletek ere, gehienez 30 orduko abiadura zirkulatu ahal izango dute; dena dela, zirkulatzeko lehentasuna izango dute beti parkean barrena oinez doazen pertsonak.

5. artikulua. Ibiak eta erreserbatutako aparkalekuak errespetatzea

1. Ibiak eta parkeko zerbitzuari atxikitako ibilgailuentzako aparkaleku erreserbatuak, ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak eta segurtasun, laguntza eta salbamenduko zerbitzuentzat gordetako aparkalekuak errespetatu beharko dira.

2. Aurreko atalean araututakoa bete ezean, edo aparkatu daitezkeen esparruetatik kanpo edo ezarritako ordutegitik kanpo aparkatuz gero, ibilgailu arau hausleak parketik atera ahal izango dira urraketa egiten duenaren kontura, zehapen egokiari edo egokiei kalterik egin gabe.

6. artikulua. Natura errespetatzea

1. Guztiaz ere, parkeko erabiltzaileek, Arabako mendiei, natura babesteari eta ibilbide berdeei buruzko foru araudiaren xedapenei men egin beharko diete; ildo horretan, debekatuta dago loreak, adarrak, basafruituak edo beste landare elementu batzuk erauzi eta moztea, baita animaliei eragozpenik sortzea edo faunaren habitatei, habiagintzako eremuari edo atsedan lekuei kalterik eragitea ere. Urraketei dagozkien zehapenez gain, espedienteak ebaluatu eta eskatu egingo ditu dagozkion kalte-ordainak, sorrarazitako kalteak konpontze aldera.

2. Era berean, debekatuta dago sua piztea, erabiltzaileen beraien etxeko barbakoetan izan ezik. Barbakoak arruntean erabili ahal izango dira, segurtasun eta suteak prebenitzeko arrazoiak direla eta, horien erabilera mugatu edo debekatzen den aldietan izan ezik.

3. Ezin da kanpatu parkearen eremuaren barruan; era berean, ezin da gaua eman bertan.

4. Ezin da zaborrik edo bestelako hondakinik bota parkearen eremuan. Halakorik gertatuz gero, parkeko zerbitzuak jaso eta parketik aterako du arau-hauslearen kontura eta kostura, zehapen egokiari edo egokiei kalterik egin gabe.

7. artikulua. Soinua igortzen duten tresnen erabilera

Berariaz debekatuta ez dauden esparruetan, irratiak edo soinua sortzen edo erreproduzitzen duten beste tresna batzuk bolumenaren arrazoizko mailaz erabili ahal izango dira, gainerako pertsoneri edo inguruneari kalterik ez eragiteko moduan.

8. artikulua. Bainatzearekin bateraezinak diren jarduerak

Bainu eremuan, udako ordutegian, bainatzearekin bateraezin gerta daitezkeen jarduerak, besteak beste, surf, windsurf edo kite-a egitea edo uretako patinetan ibiltzea, halakoetan aritzeko esparru mugatuetan egingo dira, ez beste inon. Nolanahi ere, jarduera horiek erabat debekatuta daude Uribarri Ganboako urtegiaren adarretako Ramsar hezegunearen eremuan.

9. artikulua. Animaliak parkera sartzea eta han egotea

1. Zeharo debekatuta dago etxeko abereak edo animalia etxekotuak uretara eta "bainu eremura" sartzea. Bainua hartzeko erabiltzen den ur-geruza eta ondoko legarrezko aldea hartuko da bainu eremutzat. Debekualdia bainatzeko sasoian egongo da indarrean eta organo kudeatzaileak parkean ezartzen dituen aldietan. Zeharo debekatuta dago, modu iraunkorrean, etxeko abereak edo animalia etxekotuak sartzea komunetan eta naturagunearen barruan dauden arreta egiteko eta informazio emateko lekuetan edo ingurumen hezkuntzako lekuetan. Nolanahi ere, pertsona itsuen itsu-txakurrek edo itsu-gidariak sartzea izango dute bainatzeko eremuan, komunetan, jendeari arreta egiteko edo informazioa emateko lekuetan zein ingurumen hezkuntzakoetan, edozein sasoitan, baldin eta gaixorik ez badaude, oldarkorrek ez badira, garbitasun nahikoa badute edo pertsonen osasunari arriskurik ekartzen ez badiote.

2. Aurreko guztiari kalterik egin gabe, parkeko gainerako esparruetan, parkeari eragiten dien berariazko araudiaz gain, etxeko animaliarik daramaten pertsonen ondoko arauak men egin beharko diete:

a) Animaliek une oro lotuta egon beharko dute, kateaz edo uhalez eta lepokoz. Horiek guztiak egokiak izango dira animalia ezaugarrien arabera eta, gehienez, bi metroko luzera izango dute.

b) Agintari eskumendunek arriskutsutzat jotako animaliek muturrekoa eraman behar dute ezinbestean, aurretiaz hozka egin dutelako aurrekariak dituztenek eta arriskugarritasun nabarmenekoek.

c) Ezin izango dira animalien gorozkiak utzi parkearen barruan. Ondore horretarako, animalia daraman pertsonak une oro ardura izango du gorozkiak hartu eta edukiontzi egokietan uzteko, itxitako poltsa iragazgaitzetan.

10. artikulua. Ekitaldiak egitea

"Bainu eremuan" onartzen diren erabilerekin uztargarri ez diren gertakari edo taldeko ekitaldiak antolatu ahal izateko eta parkearen eremuaren barruan egin nahi diren gainerako taldeko ekitaldiak egin ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren berariazko baimena beharko da, bai eta bidezkoak diren gainerako baimenak ere.

11. artikulua. Arau hausteen sailkapena

1. Honako ordenantza honetan jasotzen diren betebeharrak eta xedapenak urratuz gero, arau hauleak zehapena izango du Toki araubideari buruzko oinarrizko legeriak eta aplikagarria den gainerako legeriak arautzen dutenari jarraiki.

2. Arau hauste oso larriak dira ondokoak:

a) Bizikidetzeta nabarmen asaldatzea, beste pertsona batzuen lasaitasuna berehalakoan eta zuzenean edo haien legezko eskubideen erabilera eragozten denean, onartutako jardueren garapena oztopatzen denean edo osasungarritasunari, apaingarri publikoei, ekosistemen egoera edo osotasunari eta/edo faunako eta florako espezieei kalterik egiten zaienean.

b) Beste pertsonaren bati edo batzuei espazio edo zerbitzu publikoren bat erabiltzeko eskubidea eragozte, erabiltzeko eskubidea izanik.

c) Espazio publikoak, instalazioak eta elementuak, higigarriak zein higiezinak, hondatzea, bai eta landare estaldura eta ingurune naturala narriatzea ere.

3. Arau hauste larriak dira ondokoak:

a) Artikulu honen aurreko idatz zatian azaldutako egintza guztiak, horien larritasuna edo garrantzia txikiagoa denean, unean unekoak direlako, denboran eragin txikia dutelako eta ondorio arinak sorrarazten dituztelako.

b) Parkera sartzea baimendutako ordutegitik kanpo.

c) Parkera sartzea edo/eta barruan zirkulatzea ordenantza honetan jasotako arauak urratuta.

d) Ibilgailuak aparkatzea horretarako egokitutako lekuetatik kanpo, edo ibiak eta gordetako aparkalekuak oztopatzea zein inbaditzea.

e) Eremuan kanpatzea edo gaua ematea.

f) Sua piztea horretarako baimenik ez dagoen lekuetan edo uneetan.

g) Zaborra edo hondakinak botatzea edo gorozkiak uztea parkearen barruan.

h) Bainu eremuan edo uretan animaliak sartzea.

i) Animaliak onartutako bide eta esparruetan, animalia arriskutsuak muturrekorik gabe eramatea.

j) Ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki, bainatzearekin bateraezinak diren jardueretan aritzea bainu eremuan.

k) Taldeko ekitaldiak egitea aurretiazko baimenik jaso gabe.

l) Animaliak onartutako bide eta esparruetan, txakurrak uhalez lotu gabe eramatea.

4. Arau hauste arinak dira hauek:

a) Lasaitasuna asaldatzea zarata gogaikarria aterata.

b) Parkeko ondasun higigarri edo higiezinetan, kalte txikiak edo garrantzirik gabekoak eragitea.

c) Gainerako erabiltzaileen jarduera edo bidezko jarduerak modu arinean asaldatzea edo mugatzea.

d) Animaliak sartzea parkeko komunetan, jendearentzako arreta gunetan eta informazioa emateko lekuetan eta ingurumen hezkuntzakoetan.

5. Araudi honetan jasotako betebeharrak eta debekuak urratzen dituzten egintzak, bainu eremuan edo haurrentzako jolaslekuetan eginez gero, hein handienez zehatuko dira. Gainerako kasuetan, zehapenaren mailak aintzat hartuko du gizarte, ingurumen eta/edo osasun larritasuna; eragindako kaltea, urraketa errepikatzea eta urraketa gaitzespen mailan eragina izan dezakeen zeinahi alderdi.

12. artikulua. Zehapenak

1. Ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki, oso larritzat jotako arau hausteak, gutxienez, mila bostehun eta bat euroko (1.501 €) eta, gehienez, hiru mila euroko (3.000 €) isunaz zehatu edo zigortuko dira.

2. Larrizat jotako arau haustek, gutxienez, zazpiehun eta berrogeita hamaika euroko (751 €) eta, gehienez, mila eta bostehun euroko (1.500 €) isunaz zehatu edo zigortuko dira.

3. Arintzat jotako arau haustek, gutxienez, berrogeita hamar euroko (50 €) eta, gehienez, zazpiehun eta berrogeita hamar euroko (750 €) isunaz zehatu edo zigortuko dira.

13. artikulua. Preskripzioa

1. Urraketak preskribatzeko epea hiru urtekoa izango da oso larrizat jotako arau hausteentzat; bi urtekoa larrizat jotako arau hausteentzat eta sei hilekoa arintzat jotako arau hausteentzat. Urraketa egin deneko egunaren hurrengotik zenbatzen hasiko da epea.

2. Arau hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urtean preskribatuko dute; arau hauste larriengatik ezarritakoek bi urtean; eta arau hauste arinengatik ezarritako zehapenek urtebetean, aurreko atalean azaldutako eran zenbatuta.

14. artikulua. Zehapen prozedura

1. Honako ordenantza honetan arautzen diren arau hausteen ziozko zehatzeko ahala egikaritzeko, instrukzio espedientea hasi beharko da, legezko xedapenetan eta aplikagarri diren arauzko manuetan agindutakoari jarraiki.

2. Zehapen prozeduratik eratorzen den administrazio erantzukizuna gorabehera, arau haustek eraldatu duen egoera leheneratzeko eskatu ahalko zaio urratzaileari edo urratzaileei, bai eta arau haustek sorrarazitako kalte-galerengatik kalte-ordaina ordaintzeko ere.

3. Prozedura hasitakoan, prozedura horren eraginpeko pertsonak arau haustea berariaz onartzen badu, zehapena ordaintzen badu eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa edo errekurtso judiziala jartzeari uko egiten badio, zehapena ebazteko eskumena daukan organoak zehapenaren zenbatekoa gutxitu ahal izango du, gutxienez, ehuneko hogeiei, edo bestela, aplikagarria den araudiak onartzen duen ehunekoak.

15. artikulua. Ordezkaritza eta kudeatzeko ardura

Udalak Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren esku utziko du ordezkaritza eta kudeatzeko ardura, zuzendaritza horretako langile funtzionarioek bidera dezaten honako ordenantza honetan jasotakoak urratzeagatik zehapen prozeduren instrukzioa. Prozedura hasteko eta amaitzeko ebazpenak eta zehapenaren aurka bideratzen diren administrazio errekurtsoak izan ezik, aipatutako Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak jarduketa guztiak gauzatu edo gauzatu ahal izango ditu, eta gainera, bidezkoa denean, alderdi demandatu gisa agertuko da arestian esandako zehapen prozedurei eta/edo arau haustek sorrarazitako kalteak konpontzeko prozedurei lotuta jartzen diren auzi judizialetan.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritakoa betez, arautegi horren testu osoa argitaratzen da. Testu hori ALHAOn argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodunetik aurrera egongo da indarrean, aipatutako legearen 65.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz."

Hau argitaratu da denek jakin dezaten, eta jakinarazten da honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa zuzenean jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik.

Burgelu, 2016ko apirilaren 26a

Alkatea

NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA